

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2018 Foru Dekretua, azaroaren 13koa. Onestea apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duenak, aurreikusitako dirulaguntza osagarrien baldintzak eta arauketa

9/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duena.

26/2017 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez (OZFP) 2018-2019 aldian toki erakundeei laguntzak esleitzeko deialdia eta haren oinarri arautzaileak.

Foru Gobernuaren maiatzaren 29ko 260/2018 Erabakiaren bidez onetsi zen 2018-2019 deialdiko Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko programaren kontura dirulaguntzak esleitzea.

Foru Arau horrek xedatzen du, 13. artikulua 5. paragrafoan, zertarako izango diren behin Planari buruzko esleipen ebazpenak onarturik Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren partidan xedatzeko moduan gertatzen diren funtsak, hots, honako hauen ondorioz gertatzen direnak: batez ere esleitutako dirulaguntzari uko egitearen ondorioz, hasiera batean esleitutako dirulaguntzetan finantzatu beharreko obrak esleitzeko prozeduran izandako baja ekonomikoen ondorioz egindako murrizketen ondorioz eta abar.

Horiek guztiak kontuan harturik, eta aurrekontu partidan xedatzeko moduan diren funts horien esleipena eta ordainketa arautzearen, I. eranskinean jasotzen den arauketa proposatzen da.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia azertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen foru Arauaren 13. artikulua 5. paragrafoan (19/2012 Foru Araua, azaroaren 12koa) aurreikusten diren dirulaguntza osagarrien baldintzak eta araudia; Foru Dekretu honen I. eranskinean datoz jasota.

Bigarrena. Ahalmena ematea Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatuari aintzat hartutako obrak izapidetu eta gauzatzeko behar adina nahiz dirulaguntza itzultzeko prozeduretan behar adina egintza eta xedapen eman ditzan.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNÁ SÁENZ

I. ERANSKINA

9/2016 Foru Arauaren 13. artikulua 5. apartatua aurreikusitako dirulaguntza osagarrien baldintzak eta araudia (9/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duena

Lehenengoa. 9/2017 Foru Arauaren 13.5 artikulua xedatutakoa aplikatzearren ondorio diren funtsen helburua Obra eta Zerbitzuen 2018-2019 Foru Planaren kontura emandako dirulaguntzakosatzea, da, dirulaguntzaren gai diren obrak edo jarduerak egitearren.

Bigarrena. Ez da dirulaguntza osagarririk emango 9/2017 Foru Arauan ezarritakoaren arabera Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagunduak izan diren ordainsari kostuetarako.

Hirugarrena. Funts horien onuradun dira 200 biztanle baino gutxiago dituzten toki erakundeak, baldin eta Obra eta Zerbitzuen 2018-2019 Foru Planaren kontura dirulaguntzen onuradun izan badira.

Ezin dira onuradunak izan azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu diren erakundeak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako egoeretan daudenak ere.

Laugarrena. Esleitutako laguntzak aurreko apartatua aipatutako jardunetan sartzen diren obrak finantzatzeko izango dira, baldin eta "oinarrizko azpiegitura obra" gisa tipifikatu badira, eta, hala, beraz, ez dute dirulaguntzarik jasoko ekipamenduetarako jardunek, salbu eta ekipamenduetarako inbertsio txikiak izanik, oinarrizko azpiegiturako proiektu orokor batean sartuta daudenak, edota, ekipamenduetan gauzatuak izanik, berariaz oinarrizko azpiegituratzat sailkatzen direnak (hirigintzako edo arkitekturako oztopoak ezabatzea).

Bosgarrena. Ez dute dirulaguntzarik jasoko Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2018-2019 deialdian lagundu zitzaizen jardunek, 9/2017 Foru Arau horren 7.3 artikulua xedatutakoaren arabera "ekipamendu eta zerbitzuetako obra" gisa kalifikatu zirenek.

Seigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1. Funts hauen kontura esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko, 9/2017 Foru Arauaren 13. artikulua 5. paragrafo horretan ezarritakoari jarraituko zaio, hau da:

a. 500 biztanle baino gutxiagoko toki erakundeen kasuan, esleitu beharreko dirulaguntza osagarria bezala gisa kalkulatu da, hein honetan: Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2018-2019 deialdian diruz lagundu diren eta oinarrizko azpiegituratzat kalifikatu diren obrak diruz laguntzeko aurrekontuaren ehuneko 100 artean.

b. 500 biztanle baino gehiago eta 2000 baino gutxiagoko toki erakundeen kasuan, esleitu beharreko dirulaguntza osagarria bezala kalkulatu da, hein honetan: Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2018-2019 deialdian diruz lagundu diren eta oinarrizkotzat kalifikatu diren obrak diruz laguntzeko aurrekontuaren ehuneko 95 artean.

2. Obraren esleipen aurrekontuaren arabera izango da dirulaguntza, eta honela kalkulatu da: obra edo zerbitzu bakoitzerako aurreikusitako dirulaguntzen ehunekoak aplikatu zaio Obra eta Zerbitzuen 2018-2019 Foru Planaren konturako dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den proposamenari; izan ere, funtsaren bidez emango diren dirulaguntzak foru planaren dirulaguntzen osagarriak dira.

9/2017 Foru Arauaren 11. artikulua 4. apartatua ezarritakoarekin bat etorritik, dirulaguntza osagarriaren zenbatekoa ezartzean gehienez ere onargarria izango den gehikuntzak muga izango du esleipen prezioaren arabera hasieran esleitutakoaren ehuneko 10.

3. Azkenik, aurreko paragrafoan zehaztutako dirulaguntza doitu egingo da obra gauzatzeak izan duen benetako kostuaren arabera. Obra gauzatzeko benetako kostua esleipenaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza murriztu egin daiteke. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan baizik ezingo da berrikusi eta handitu dirulaguntza, edota finantzatzen duen partidaren kontura dirulaguntza esleitzeko orduan akatsa egin bada, akatsa zuzentzeren ondorioz, eta, betiere, aurrekontuan baliabideak izanez gero baliatzeko moduan.

4. Kontuan izanik ematen diren dirulaguntzak Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko funts direla, eta 19/2012 Foru Arauaren 13. artikulua azken paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, toki erakundeari emandako dirulaguntza osagarriaren eta aurretik Foru Planaren kontura esleittakoaren batura ezingo da izan Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko finantza zuzkiduraren ehuneko 10 baino handiagoa, hau da, 1.520.154,00 euro, 2018-2019 deialdirako.

5. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren dirulaguntza emateko araudian galdegiten den finantza plana betetzeko, aukeran izango da toki erakundeak aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera kalkulatu eta onetsitako dirulaguntza osagarriaren aurreikuspena finantza planari aplikatzea baliabide aurreikusi gisa; hala ere, horrek ez du esan nahi Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza esleitzeko konpromisoa hartzen duenik, 9/2017 Foru Arauan eta ebazpen honetan ezarritakoa baino harago.

Zazpigarrena. Hautatze irizpideak.

Dirulaguntza osagarria esleitzeko da behin lehenagotik diruz lagundu diren jardunak diruz lagundu ostean.

1. Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko partidan une jakin batean kreditu nahikorik ez badago dirulaguntza osagarria esleitzeko jardun guztiei (alegia, dagokion xedapen arautzaileak eskatzen dituen agiriak aurkeztuz egiaztatutako esleipenetako jardun guztiei), dirulaguntza osagarriak esleitzeko dira lehenatasun irizpidetzat aplikatuz dagokion dokumentazio galdeginari ofizialki sarrera eman zaion eguna, hots, zein eskabideren dokumentazioa aurkeztu den lehenago, hari emanez lehenatasuna.

2. Toki erakunde bik edo gehiagok data berean erregistratzen badute aurreko apartatuan aipatzen den dokumentazioa, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren programaren ebazpen proposameneko "Ekipamendu azpiegituren beharrian egoeraren eta defizitaren indizearen" (EABDI) arabera beharrian egoera handiagoan denari emango zaio lehenatasuna. Hala eta ere berdinketak jarraitzen badu, biztanleria gehien duen toki erakundearen eskaerari emango zaio lehenatasuna (2017ko Toki Finantzaketako Foru Funtserako erabilitako datuak hartuko dira, ekitaldi horretan egin baitzen deialdia).

Zortzigarrena. Esleitzea eta ordaintzea.

1. Esleipenaren ondorioz Obra eta Zerbitzuen Foru Plana dela-eta emandako dirulaguntza doitzeko txostenean egingo da, gehienbat, dirulaguntza osagarriaren kalkulua eta esleipen proposamena. Tokiko eta Udalerriaz Gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak egingo du txosten hori.

2. Organo eskudunak egingo du esleipen ebazpena.

Ebazpenak berekin badakar jarduera bat baino gehiagori dirulaguntza esleitzea, diruz laguntzen diren jardueren hurrenkera adieraziko da ebazpenean bertan.

3. Proposatutako dirulaguntza gutzia ordaintzeko aurrekontu kreditu nahikoa dagoen kasuetan baino ez da izango ebazpena irmoa.

4. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren hasierako dirulaguntza jasotzeko baldintza berberak bete beharko dira dirulaguntza ordaintzeko, eta agiri berberak aurkeztu beharko dira, eta bermeen araubidea ere berbera izango da.

Bederatzigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak.

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren hasierako dirulaguntza emateko oinarri izan zen araudian edo kasurako beren-beregi onartu ahal den araudian ezarritako baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte dirulaguntza osagarriaren onuradun gertatzen diren toki erakundeek.

Hamargarrena. Dirulaguntzak itzultzea.

Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta berandutze interesak ere ordaindu beharko dira, 53/1992 Foru Arauaren 19. artikuluan ezarritako zenbatekoa ordaintzen den unetik (53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa), baldin eta 11/2016 Foru Arauaren 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan gertatuz gero (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzkoa), bai eta dirulaguntzaren xede izan den zerbitzuari edo helburuari eusteko epea bete ezean ere.

Halaber, hala badagokio, dirulaguntzen foru araudian xedatutako arau hauste eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzak ezeztatzea.

1. Laguntzak emateko eta egiaz jasotzeko ezarritako baldintzak bete ezean, ondorioak hauek izango dira, aldeztatik espedientearen eginda: laguntza osoa edo haren zati bat ezeztatzea; jasotako kopuruak itzuli behar izatea; eta, hala badagokio, legez dagozkion erantzukizun guztiei aurre egitea.

Hamabigarrena. Hainbat dirulaguntza aldi berean jasotzea.

19/2012 Foru Arauak, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duenak, 19. artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, harira xedatutakoak beteko dira.

Hamahirugarrena. Indarrean jartzea.

Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.